Nahiz eta berehala Greziarako bidea hartu, ez zaigu aldi batean behintzat Antiguako Txapelketa hain aise burutik joango. Oso pozik bukatu nuen, eta pozik nago egindakoarekin. Ez nuen espero hain aurrera joaterik. Aurkezpen egunean ikusi nuen finalak abuztuaren 27rako finkaturik zeudela eta neure baitan pentsatu nuen: –Lasai, Ioritz, ez haiz hemen izango-eta, ez haiz iritsiko-eta. Eta azkenean, iritsi...Hegaldia atzeratu egin behar izan nuen finalean parte hartuko baldin banuen. Finalean egotea ez nuen batere espero.

Iñigo Bikuñarekin aurten asko jokatu duela gogorarazi diot Ioritzi:

Bai, elkarrekin berri izateko motiboak baditu, askotan jardun gera eta bikote gisa. Aurreneko bi partidak irabazi ondoren hasi ginen argia ikusten. Eta lehenengo urtea izan dela kontuan izanik, nahiko pozik nago. Oso gustokoa gertatu zait pilotaleku txiki hori. Oso zabala da, eta zabalera erasotzeko aukera onak ematen dizkizu. Eta tanto batzuk horrela lortzen badituzu, arerioak horra joateko joera izaten du, eta txokoa libre geratzen da. Bai bai, asko gustatu zait. Oso berezia...

Ez dago hitz asko egin beharrik datorren urterako gonbitea egiteko:

Gustora asko joango nintzateke berriro. Etxetik ere nahikoa eroso egiten da...Hots egin, hots egin.

Greziaz eta hitz eginez amaitu dugu elkarrizketa:

Aukeran, laburregia egin zait Graziako egonaldia. Egonaldia ez, bisitaldia baizik; hala ere bazter dezente bisitatu ditugu. Udaldian, partiduak zirela eta, ez dut joaterik izan, baina astebetxoarekin... Ez naiz bidaiazale handi horietako baina, Greziako aste hau atsegina egin zait oso. Joanarekin ez nago damutua.

Bere hogei urte horiekin, hemendik aurrera ere pilotari gisa ikusten du bere burua Amezketako Altuna miresten duen pilotari honek. Magisteritza ikasten ari da Egiguren Donostian, orain bertan hirugarren urtean. Batzuetan, ordu batzuk libre dituztenean, Antiguako pilotalekura etortzen omen dira fakultatetik. Umeekin lan egitea da bere ametsetako bat. Baina hori, hemendik urte batzetara. Bien bitartean pilotan ibiltzeko ilusioa dauka Ioritzek.

IÑIGO BIKUÑA

Garaipenaren pozak hobetzeko balio beharko dit.

Edozein dela ere,edonon dela ere, beti da pozgarria txapelketa bat irabaztea. Eta txikitatik ibili zaren pilotaleku batean gertatzen baldin bada hori, askozaz pozgarriagoa izan ohi da. Horrelako zerbait gertatu zitzaion Iñigo Bikuña donostiarrari abuztuaren 27an. Zortzi urte zituela lotu zitzaion Antiguako Pilota Eskolari eta bertan eman ditu gerozko urteak. Finalisten artean, beraz, gutxik esan zezaketen frontoi horretan hainbeste ordu sartutakoak zirenik.

Lan samurra da hemeretzi urteko mutil-pusketa donostiar hau elkarrizketatzea.Aise ateratzen zaizkio hitzak:



Finala oso gogorra izan zen, eta oso pozik nago orain ere. Igandeko poza hor daramat ondo hiltzaturik, barnean, baina hasierako poz hura ez da erraza maila hartan eramatea. Borborka daukazu barruan. Ez, orain, bere onera etortzen ari da. Badakizu zertarako balio duten animo haiek? Aurrerantzean, oraindik ere ilusio gehiago jartzeko, hobeto entrenatzeko, geroz eta hobeto jarraitzeko. Urte asko pasatu da donostiar batek txapela irabazi gabe eta...hori ere pozgarria da.

Zenbat urte igaro diren galdetu diodanean, berehala eman dit erantzuna:

Oker handiegirik gabe esan dezaket hogeita sei urte izan direla. Lehorte luzea, aukeran. 1991an geratu zen azken txapela Donostian, Joxe Mari Kalonjeri esker.

Azken urte honetan gauzak ongi atera zaizkio Iñigori eta egiten duen balorapena positiboa da:

Bai, aurten txapelketetan nahiko ondo ibili naiz. Doneztebe, Zumaia, Antiguo... urte polita, egia esan. Ea ea hemendik aurrera ere horrela jarraitzen dudan.

Hobekuntza, aurrerakuntza horren giltzarria non dagoen galdetu diot:

Nire ustez, atzelari bezala jokatzen hasi nintzenetik, askozaz lasaiago sartzen naizela pilotaren bila. Hirugarren urte da atzetik jokatzen nabilela. Bestalde, fisikoki ere hobeto nagoela gaur egun. Jan-kontuetan hobetuz... bai, azken boladan zortzi kilo galdu ditut.

Zortzi kilo jaitsi,erraz esaten da. Zer egin behar da horretarako?

Ondo jan, gauza guztien gainetik. Nik dieta bat jarraitzen dut eta oso zintzo gainera. Proteina dexente hartu, goizetako Cola-caori agur esan...Hidratoak gutxitu, eta horiek ere partiduen aurrean bakarrik. Horrela galdu ditut soberako kilo horiek.

Final gehiagotara iristea, hobetzen jarraitzea...askotan aipatzen dituen kontuak dira Iñigoren ezpainetan. Injenieritza Mekanikoa ikasten ari da Ordizian. Bigarren urtean sartuko da, lehendabizikoa –nahiz eta gogorra gertatu– egoki atera ondoren. Egunero egin ohi du Donostia-Ordizia joan etorria, eta Amezketan geratzen da entrenatzeko. Oso garbi dauzka bere ereduak pilota alorrean:

Zabaletaren kolpea asko gustatzen zait, eta Barriolaren tenplea...partida asko irabazteko. Horiekin egin daiteke pilotari perfektua.

PERU LABAKA

Bazen garaia!

Ez dugu galdera egin beharrik izan, Peru Labakaren aurren-aurreneko iritzia jasotzeko: “Bazen garaia, bai...Azken hiru urteotan semifinaletara ailegatu eta beti ateetan geratu behar hori ez da ederra izaten. Aurten, beraz, oso kontentu txapelarekin”. Bai, gazteen mailan bi bider geratua da finalerdiak gainditu ezinik. 2016an, Santxok eta Alduntzinek 21-11 irabazi zieten Peru eta Jon Olaizolari, nagusien mailan.

2016an, Santxok eta Alduntzinek 21-11 irabazi zieten Peru eta Jon Olaizolari, nagusien mailan:

Bai, aurten behintzat txapelarekin etxeratu gara. Zer nolako torneoa egin dudan galdetzen badidazu, zera erantzungo dizut: txarra egin dudanik ezin esango dugu, baina badakit on-ona ere ez dudala jokatu. Beñat eta biok ondo uztartu gara eta hori da premiazkoena...Partiduak behintzat aurrera atera ditugu. Antiguara etorri arte, beti galtzaile gertatu gara den-denetan, baina gurdia bide onean sartzea lortu dugu. Lezaman galdu, Soroa txapelketan galdu... eskerrak Antiguakoari. –Zer gertatzen zaiguk? Ez ote diagu ba pareja gisa balio? –esaten genion elkarri, irribarrez.

Handik aurrera bat bera galdu gabe ibili zitzaizkigun Beasaingoa eta Zizurkilgo Peru Labaka. Txapelketa lasai samar hartu zuela aitortu digu Peruk:

Egia esan behar badizut, txapelketa on bat egitera etorri nintzen Antiguako frontoira, lan on bat egitera. Txapelketa hasi aurretik oso bikote onak ikusten nituen. Eta horregatik, gauza guztien gainetik, partiduak aseguratzen saiatu gara, gehiegi arriskatu gabe irabaztera...

Bistan da txapelketari ekin aurretik, bere diagnostikoa egina zeukala Peruk, hau da, bikote indartsuenak zeintsu izan zitezkeen:

Eneko Labaka-Sarasa, Espinal-Olaizola...oso pareja onak ikusten nituen. Eta Zubizarreta-Arratibel ere bai. Hauen kontra jokatu behar izan genuen, eta irabazi egin genien.

Elkarrizketa egin genuen Lezoko txapelketan zebilen Labaka, finalerdietan burua sartuta. Gero, DV txapelketa etorriko zitzaion esperantzatan zegoen. Kontu hauek alde batera utzita, pilotari gisa bere burua non ikusten duen galdetu diot segidan:

Nik neuk ere ez dakit. Mantso-mantso aurrera egin eta gero, lanak-eta esango didate zenbat jokatu behar dudan. Oraingoz behintzat lana eta pilota ondo ezkontzen ditut eta horrela segituko dut seko nazkatu arte. Eta auskalo noiz izango den hori.

Lana etxean egiten du Labakak, 120 behi jezten egunero. Guztira 300 buruko ukuilua dauka. Asko omen dira, baina uzten dio poltsa hartu eta pilotarako prestatzen ere. Laguntzaileak baditu bere inguruan, eta aita eta arreba.

Iaz bukatu zituen ikasketak. Mekanizatu moduloa burutu zuen, baina ganaderitzari lotua dago gaur egun. Jaka eta Altuna gustokoak ditu pilotari bezala. Harreman ona omen dauka batekin zein bestearekin. Eta Oinatz Bengoetxea ere bere gustokoen artean hartu behar omen dugu.

BEÑAT GARMENDIA

Partidaz partida egin nahi dut aurrera.

Gainontzeko txapeldunentzat bezala, ez zeukan ahazturik abuztuaren 27an jasotako txapela, elkarrizketa egin genionean. “Egun haundie” esan zigun behiz eta berriz. Iaz ere amets egin zuen Antiguako txapelarekin, baina ez zuen janzterik izan. Aurten beldurrez plazaratu ote zen galdetuz ekin nion elkarrizketari:

“Beldurra” hitza ez da beharbada aproposena nire egoera adierazteko. Horren ordez “zalantza” jarriko nuke. Gainera, txapelketa oso biribila egitetik zetozen Zubiria eta Irurita. Beraz, ez da harritzekoa horrek zalantza-izpi bat sortaraztea. Aurreko urtean partida galtzea ez zen izan gauzarik makurrena, oso gaizki jokatzea baino...Txapelketa kuriosoa egin eta azken egunean emandako itxura... Baina, horrela izan ohi da pilota eta aurrera jarraitu behar.

Aurten berriz oso beste modu batera egin dituzte gauzak Antiguako Txapelketan:

Ez da gezurra, aizu. Lehengo partida itxuragabea izan zen gure aldetik. Ez genuen joko-izpirik erakutsi. Peru Labaka eta biok ordurarte jokatutako partida guztiak galtzetik gentozen eta...bai, halaxe

URTINEA loreak

Urtinea Baserria
San Esteban auzoa, 20170 Usurbil
Telf.: 943 362255 urtinea@urtinea.com

JAKINTZA ikastola

Erregezain, 12 - Tfno.: 943/21 7324 - Fax.:943/218732-20 - 008 DONOSTIA
email: 012368aa@hezkuntza.net www.jakintzaikastola.org

Haur eta Lehen Hezkuntza - D eredua - Jangela - Goizeko Gela
Kirola - Musika - Abesbatza - Play time - Mendizaletasuna.

da. Antiguan hasi artekoak galduta geneuzkan. Baina, hortxe hartu dugu ziaboga. Trainerua zuzendu genuen eta harrezkero, bikain. Orain, txapelaren jabe. Beranduko poza bezalakorik ez dago.

Labaka-Garmendiak bikote ona egin dute aurtengo Txapelketan, Antiguan. Baina ez dago mihitik asko tira egin beharrik arerio gogorrenez Garmendia berehala hitz egiten hasteko:

Finaleko partida alde batera utzita ere, kontrariorik latzenak Zubiria eta Irurita izan dira, zalantzarik gabe. Zozketa egin zenean, Zubizarreta-Arratibel ere oso kezkagarriak iruditu zitzaizkidan; ez dute espero zitekeen jokorik egin, baina sasoian harrapatu ezkero, oso aintzakotzat hartzekoak dira arerio bezala.

Urte ona darama beasaindarrak. Orain bertan erreferentea bihurtzen ari da afizionatuen mailan:

Pozik nabil, oso pozik. Ez diot izugarrizko helburririk ezartzen nire buruari. Cholo Simeoneren kastakoa naiz: partiduz partidu...Txapelketa asko jokatzen ari naiz, eta datozkidanak: Lezokoa, Diario Vascok antolatzen duena... Jokatzeko aukerak sortzen ari zaizkit. Pozgarria da hau.

Abuztuaren 27an Abel Barriolarekin egoteko aukera izan zuen Beñatek:

Bai, oso pozgarria izan zen aldamenean edukitzea. Orain arte bera izan da nire eredua, harik eta erretiratu zen arte. Orain asko dauzkat gaurregun miresten ditudanak. Bakar bat esatea gogorra egiten zait, bakar bat aukeratzea, uf....

Gasteizen dabil Magisteritza ikasten. Bigarren urtea amaitu eta hirugarrenean sartu da udazken honetan. Gerora ere, kirol-alorrean lan egitea gustatuko omen litzaioke beasaindar gazteari (20 urte". Bien bitartean, ikasketak eta pilota modu orekatuan eraman nahi ditu. Lazkaoko LAPKE elkartekoa da. Pilotari ona izateaz gainera, bere laguna asko animatzen duen horietakoa dela iruditu zitzaidan azken txapelketan. "Benga, Peru, eutsi partiduari. Eutsi..Aupa" entzun nion behin baino gehiagotan, errebotearen kontra.

Rezustatik Rezustara Bergararrak hiru torneo irabazi eta beste inork baino neurketa gehiago, 35, jokatu ditu 2017ko udan.

Joseba Lezeta

Aurrelarien eguzki indartsuaren itzalpean hainbat urte eman ondoren, atzelari batek beste pilotari guztiek baino argi handiagoa egin du 2017ko udan. Beñat Rezusta izan da uztailetik irailera bitarteko pilotari onena hainbat arrazoiz. Hiru torneo irabazi ditu -Iruñekoa, Bilbokoa eta Logroñokoa-, sei final jokatu ditu -aipatutako hirurak, Bizkaia taldekakoa, Donostiakoa eta Lekeitiokoa-, partida gehien -35- pilatu dituen pilotaria da eta hiru hilabete horietan erregulartasun harrigarria erakutsi du, egungo atzelarien buru dela baieztatuz. Badira hitzordu zehatzetan bere parean jardun diren beste bi pilotari, Albisu batez ere eta Zabaleta, baina ataundarrak zein etxarrendarrak ezin izan diote eutsi bergararrak goi mailan astea joan eta astea etorri erakutsitako maila apartari. Tarteka baino ez dute lortu. Hori bai, Albisuk abuztu zein iraila ederrak osatu ditu.

Hasi zuen bezala bukatu du uda Rezustak: irabaziz. Iruñeko San Fermin torneoan Joseba Ezkurdiarekin nagusitu zen uztaileko lehen hamabostaldian eta Logroñoko San Mateokoan beste horrenbeste egin zuen Víctorrekin iraileko bigarren hamabostaldian. Labriten zein Adarragan beste batzuk eraman zituzten etxera pilotari onenaren sariak. Batean zein bestean Beste nor izan zen eraginkorrena beste kontu bat da. Horretan zalantza gutxi geratu da.

Hasi zuen bezala bukatu du uda Rezustak: irabaziz. Iruñeko San Fermin torneoan Joseba Ezkurdiarekin nagusitu zen uztaileko lehen hamabostaldian eta Logroñoko San Mateokoan beste horrenbeste egin zuen Víctorrekin iraileko bigarren hamabostaldian. Labriten zein Adarragan beste batzuk eraman zituzten etxera pilotari onenaren sariak. Batean zein bestean Beste nor izan zen eraginkorrena beste kontu bat da. Horretan zalantza gutxi geratu da.

Eta esku bakarraz, ezkerraz. Zenbat pilotakada joko zituen eskumaz 35 partida horietan? Ez ziren ehun izango.

Taldekako Bizkaia torneoan, Altuna lagun zuela baita, lan hobezina biribildu zuen Rezustak: hiru neurketa eta beste hainbat garaipen. Nahikoa ez, halere, txapelketa bereganatzeko. Gorbeia bere taldeko beste bi lagunek galdu egin zuten, Jaunarenak buruz buru kantxa osoan eta Julen Retegik lau t'erdi

Laugarren torneoa ere esku-eskura izan zuen Bergarako atzelari ezkertiak Donostian. Jokin Altunarekin batera mendean zituzten Artola eta Albisu final erabat gipuzkoarrean, baina Asegarceko kideek irauli egin zituzten jokoa zein markagailua, 21na berdindu eta azken tanto eurenganatuz.

Hori bai, Rezustak ez du torneo bakar baten ere pilotari onenaren saria jaso. Ezkurdiak kendu zion ohore hori Iruñean; Altunak, Bilbon; Artolak, Donostian; Urrutikoetxeak, Lekeition; eta Albisuk, Logroñon.

Bitan jaso du aitorpen hori Jon Ander Albisuk, Rezustak azken koadroetan hiru hilabete hauetan izan duen aurkari sendoenak. Zarautzen eta Logroñon bere alde egin zuen epaimahaiak. Ataundarrak hiru torneo, Rezustak adina, irabazi ditu: Zarauzkoa Oinatz Bengoetxearekin, Bizkaia taldekakoa buruz buruko txapeldunarekin, Bakaikoarekin eta Víctorrekin -Anboto taldeko kide bezala- eta Donostia Hiria Artolarekin. Abuztu oparoa benetan. Beste bi finaletara ere ailegatu da, Gasteizen eta Logroñon. Eta are garrantzitsuagoa, aurreko hilabeteetan galdutako jokoa eta konfiantza berreskuratu ditu. Oraindik gazte baina dagoeneko eskarmentudun, bere garairik onenean behar du Albisuk datozen lauzpabost urteetan. Rezustaren alternatiba sendoena da eta Asegarceren udako emiatzetan eragin handia eta positiboa izan du.

Oinatz Bengoetxea txapeldunaren uda ezin da torneoekin eta torneoetan bakarrik neurtu. Bi irabazi ditu, Zarauzkoa eta Bizkaia taldekakoa. Emaitza horiek beste birekin jantzi ditu. Gasteizko buruz buruko finalaren errebantxa bikainean berriz nagusitu zitzaion Irribarriari eta Donostian antolatutako lau aurrelariren arteko norgehiagokan ere 22ra heldu zen Urrutikoetxea lagun zuela Altuna eta Irribarriaren aurrean. Gorabehera bat edo beste izan baditu ere, maila onean jardun du eta abuztuaren 15ean, Azkoitian, goia jo zuen bere jokoak. Zutik jarrita txaloz esan zioten agur pilotazaleek. Ikustekoa.

Ez sinestekoa Aimar Olaizolari gertatu zaiona. Uztailaren 7an lau t'erdi barruko San Fermin torneoa poltsikoratuz ekin zion udari. Binakakoetan, ordea, final bakarra jokatu, Bilbon, eta bera galdu egin du. Iruñean, Gasteizen, Zarautzen, Donostian, Lekeition eta Logroñon atarian geratu zen. Gertu, baina kanpoan. Gantxoak funtzionatu dion arren, antzu ibili da hainbat urtez garaipen ugari lortu dituen hitzorduetan.

Gasteizko Andra Mari Zuriaren torneoan eta Bilboko Asegarceren 25. urtemugakoan ikusi zuten Jokin Altunarik onena pilotazaleek. Oguetan David Merinorekin hartu zituen mendean beste guztiak. Lan handia eta biribila eginez. Finalean, nabarmen atzetik joan ondoren pazientzia eta argitasun handiz heldu ziren 22ra Urrutikoetxeari eta Albisuri gailenduz. Beste traje bat jantzi zuen Bilbon, Rezusta atzean zuela. Erremate sorta eskaini zuen. Iaz ez bezala, aurten beste paper bat egokitu zaio amezketarrari. Konbinazioetan laguntza gutxiago izan du sarritan. Figuren peajea. Abuztu bukaeran partidak pilatu eta esku-eskura zuen Donostia Hiria torneoak azken orduan ihes egin ondoren, Altunaren distira itzalduz joan zen.

Mikel Urrutikoetxeak denetarik egin du. Batetik, aurrelari eta atzelari lanak tartekatu ditu. Asegarceko komodina da. Baita suhiltzailea ere zenbait unetan. Lekeition zein Bastidan podiumeko goreneko mailara igo zen Mikel Larunberekin batera. Gasteizen eta Bilbon porrot mingarriak izan zituen. Ikusiko dugu hurrengo Binakako Txapelketan non kokatzen duen enpresak.

Iñaki Artola eta Víctor binakako torneo bakarrean aritu eta irabazi egin dute bera: Alegiakoak Donostiakoa eta errioxarrak Logroñokoa. Alderdi horretatik ezin zaie gehiago eskatu. Probetxua atera zieten aukerei. Aurrelari askoren arteko lehia dute Asegarcen eta azken hilabeteotan beste gazte bat agertu da leku eske: Unai Laso. Presio gehiago aurretik dituenentzat.

Gorabeheratsu ibili da Joseba Ezkurdia, beharbada hobeto torneoetan. San Ferminetan erakustaldia eman zuen Aimar

Olaizolaren aurka finalerako bi txarteletako bat erabaki zuen partidan. San Mateoetan garaipen bat falta izan zitzaion udari agur aparta emateko, baina finalean ez genuen bere bertsio onena ikusi. Pilotari arriskutsua da Ezkurdia, handienei burukomina eragiteko gauza dena. Baita behera errazegi egiten duena ere.

David Merino Gasteizen nagusitu zen. Iker Irribarria, berriz, udatik esku hutsik joan da, bigarren urtez ilaran. Zarauzko eta Bastidako finaletan izan zuen aukera bikoitza. Kale. Oinatz Bengoetxearen aurkako errebantxan, Oguetan, poz galanta hartzetik bi tantora geratu zen. Jarraikortasuna falta izan zaio. Baita Beñat Rezustarekin torneoren bat jokatzeko aukera ere. Laguntza ederra da hori emaitza onak pilatzeko...

BAR-CERVECERÍA GARAGARDOTEGIA
PEPE
Avda. Zumalacárregui, 3
20008 DONOSTIA
Tel.: 943 116 733
barpepedonosti@gmail.com

La CERVECERIA
JAN TA EDAN
-FOOD BEER & COFFEE-

CERVECERIA mandragora
GARAGARDOTEGIA
Plaza José María Sert, 9
20018 DONOSTIA
Tel.: 943 312 699
mandragoracerveceria@gmail.com

DG MUEBLES & COCINAS
SUKALDEAK eta ALTZARIAK
Pillotegi Bidea nº2 . Donostia - San Sebastián (Barrio de Igara)
info@mueblesdg.com / Tel. 943 311 465
Horario: Mañanas: 9:30h a 13:00h Tardes: 15:30h a 19:30h / Sábados: 10:30h a 13:h.
*Aparcamiento gratuito y bus en la puerta.

Ur hornikuntza eta saneamendu zerbitzuak Donostia-San Sebastián, Errenteria, Hernani, Lasarte Oria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Urnieta, Usurbil eta Astigarragako udalerrientzat

Bostekoa luzatu, "ESKERRIK ASKO" esateko

Sansustene

Txapelketa amaitu eta, jarraian, mahaia batzuen inguruan biltzea izan ohi da usadioa Antiguan, final-egunean. Azken urteotan Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak ere parte hartzen du lagunarteko bazkari honetan eta, ongi derizkionean, bertso batzuk kantatzen dizkigu, gure gozamenerako. Bestea beste, hauxe bota zigun joan den abuztuaren 27an:

Urteak nola doazen
ezin da sinetsi;
gaur umetxoa dana
agurea etzi;
antolatzen hasita
ezin zeiken utzi
Antiguok hori digu
garbi erakutsi
ze, aurten bete dira.
hirurogeita beatzi.

Aurreneko txapelketa 1941koa da. Ez dago behar beste informazio nolakoa izan zen erabat argitzeko. Finalisten izenak jakin badakizkigu: Segura Lodosakoa eta Estanga (Betelukoa), Ondarretako Altuna eta Antiguako Poloren kontra. Ikusten denez, azken partidan soilik plazaratu omen ziren pilotari jantziz. Zapatila zuririk ez eta, Estangak urdinak erabili omen zituen plazan. Gerraondoko urte haietan... edozein gauza! Ez da argitzen kronika zaharretan, Antiguako auzoan festa handia egin zen ala ez pilota partida haien aitzakiarekin, eta euren anparoan.

Dena den, txapelketa jokatu den urte guztietan festa-egun bihartzen da final-eguna. Aurten ere bai. Iazko finale egunean baino eguraldi hobearekin argitu zuen eguna abuztuaren 27ak. Hala ere, euri-tanta bakan batzuk erori ziren nagusien partida hasi eta berehala. Ez zen, ordea, euritakoaren premiarik izan. Doi-doi eutsi zion ateri. Sargoria izan zen goiza eta askoz gehiago eguerdia... Ez dago esaterik nola bukatu zuten zenbait pelotarik! Haiek izerdiak...

Final-egun atsegin batek asko laguntzen du txapelketan zehar izandako gorabehera zakarrenak, mingotsena uxatzen, eta azkenean, pilotari batek aldagelan emandako bostekoarekin geratzen zara. Bai, bostekoarekin eta barru-barrutik ateratako "eskerrik asko" hitz sentitu haiekin. Ez zen une atseginena berarentzat, kanporatu berria baitzuten pilotalekuan gogotik jokatu ondoren. Eta hala ere, bostekoa luzatu eta "eskerrik asko", ordurik latzenean. Bere izena esateko gogoak eman dit, baina gordean eramango dut urte betean gutxienez.

Horrelako portaera batek ez ditu samin guztiak estaltzen, baina egundoko laguntza da hurrengo batean ere, txapelketa antolatze aldera, bideari ekiteko garaian, animoz beterik lanean hasteko.

Final eguneko bazkal-garaian, besteak beste, azken txapelketak utzitako oroitzapenak berritzen dira: Aierratik ilusioz beterik etortzen zen Patxirena, eta Mungiatik umore ederrean Donostiaratzen ziren Prieto eta Madariagarena, eta beti garaiz hurbiltzen zen Iker Salaberriarena, lehendabizikoz plazaratu diren pilotariena (Zubiria, Sánchez, Picote...), eta etxeko bezala ditugunak (Arratibel, Peru Labaka...). Filme bizkor batean doaz guztien oroitzapenak bazkal-garaian. Eta neska pilotariei egin zaien harrera abegitsua... Eta Abel Barriola handiaren bisita. Azkenean, filme aberatsa.

Okerrik ez dela, datorren urtean ere Anjel Peñagarikanorekin zera kantatuko dugu:

Antolatzen hasita

Ezin zeiken utzi.

A vista de cámara II

Iñaki eta Ander Etxenike, J.M. Otermin

Javier Rico, en funciones de máximo contable.

Angel Nieto, entregando el premio sorteado entre los asistentes a la final.

Etxegarai y Altuzarra velando sus armas.

PORTVETXE
Erretegia -Asador

Especialidad en platos de temporada, Carnes y Pescados a la brasa

** Abierto todos los días **

asadorportuetxe@asadorportuetxe.com /// www. asadorportuetxe.com

Portuetxe Kalea, 43 - 20018 - Donostia / Tel. 943 215 018 - Fax 943 219 604



Coca-cola ha estado presente en la edición 69. del Torneo.

Iñaki Elortza "Inurrieta" ardo-kaxa entregatzen.



Oraindik ere bizirik daude Antiguotik pasatako pilotari handien arrastoak.

Edozerk balio dezake eskuak berotzeko.

Donostian Pilota sustatzeko plana (2014-2017)

Iñaki Zabaleta



2014an Pilota sustatzeko plana indarrean jartzea ezinbestekoa ikusi genuen.

214.urtean Donostiak Gipuzkoako Herri arteko Pilota Txapelketa irabazi zuen. Euskadiko Herri arteko txapelketan bigarren geratu ginen, baina Pilotaren egoera Donostian oso latza zen, eta etorkizuna iluna ikusi genion. Parte hartzea oso eskasa zen, lizentzia federatu kopurua oso baxua zen (160 lizentzia inguru) eta hauen artean txapelketa ofizialetan parte hartzen zutenak 80 inguru besterik ez ziren modalitate eta kategoria guztiak batuta. Eskola kirolean parte hartzea ere oso eskasa zen, programan parte hartzen zutenen artean Pilotan soilik %2a inguruk parte hartzen zuen.

Pilota kirol elkarteei etorkizun latza ikusten genien, egitura txikiko elkarteak ziren eta inoiz nahikoa eskertuko ez zaien lau edo bost bolondresei esker kirol proiektu haiek mantendu ahal izan ziren. Hala ere, txapelketa kopuru handia geneukan eta ez zitzaien etorkizun arazorik ikusten.

2014 eta 2015 urtetan Pilota sustatzeko plan bat diseinatu genuen, no lehenengo Donostia Kirolako teknikariekin lan talde bat osatu genuen, egoeraren azterketa egin eta planaren lehenengo zirriborroa prestatzeko, prestatutako zirriborroa Donostiako pilota aritzen ziren agenteei aurkeztu eta beren proposamenak eskatu genituen, behin betirako plana idatzi aurretik.

Hiru helburu nagusi

Donostian Pilota sustatzeko planak hiru helburu nagusi dauzka:

1 Modalitate ezberdinen praktika handitzeaModalitate ezberdinen praktika handitzea.

2 Pilota kirol ikuskizun bezala sustatzea.

3 Donostiako pilotalekuen egoera hobetzea.

Modalitate ezberdinen praktika handitzea

Eskola mailan: ikastetxeetan eskola ordutan pilota sustapen kanpainak eskaini dizkiegu, eskola orduz kanpo sustapen jarduerak eskaini ditugu, eskoletan eskuzko pilotaz gain beste modalitateak ere ezagutzera eman ditugu, zenbait irakasleri heziketa fisikoa eskuzko pilota lantzeko eman dizkiegu.

Eskoletatik kanpo zenbait auzo-jaietako programetan Pilota txapelketak ikuskizun gisa sartzea lortu dugu. Udan eskaintzen diren kirol ikastaroetan pilota sartu dugu, zenbait herri-udalekuei Pilota ezagutza sasioak egiteko aukera eman diegu.

Iada pilota praktikatzen dutenen artean eskola kirola programako alebinei ikaskurte bukaeran teknifikazio saioak eskaini dizkiegu, elkarteetako infantil, kadete eta jubenil mailako zenbait pilotariri urte osoko teknifikazio eta hobekuntza programa bat eskaini diegu.

Pilota kirol ikuskizun gisa sustatzeko

Azken urtetan esku pilota profesionalen 8-12 jaialdi izan ditugu urtero; urtero herri arteko eskuzko txapelketaren finala Donostian antolatzen dute; 2016tik aurrera udan Pala Masterra antolatzen dugu Atano III pilotalekuan; urtero goi mailako xixtera partiduak antolatzen dituzte Carmelo Balda pilotalekuan.

Donostiako Pilotalekuen egoera hobetzea

Auzoetako pilotalekuen hobetze plana diseinatu dugu; auzoetako pilotataleku estali eta itxiak gauez isteko zerbitzua antolatu dugu beren mantenua hobea izan dadin; auzoetako zenbait pilotalekutan argia eduki ahal izateko pulsadore sistemak jarri ditugu; Atano III pilotalekuaren zahar berritze lanak egin dira; urtero zenbait pilotaleku margotzen ditugu.

Eta horrekin guztiarekin, Pilotak Donostian etorkizun hobea edukitzea gustatuko litzaiguke: haur eta gazte gehiago pilotaren praktika ezagutzea, gazte gehiago txapelketa mailako pilotan parte hartzea, heldu gehiago aisialdi izaerako pilota praktikatzea, eskuaz gain beste pilota modalitateek sustaketa bermatua edukitzea eta neskak ere normaltasunez esparru bakoitzean pilotan aritzea.

Horretarako guztirako ekimen dexente martxan jarri baditugu ere, etorkizunean erronkarik nagusiena kirol elkarteen inplikazioa eta garapena lortzea da.

Ea denon artean lortzen dugun.

***Donostiako Kirol Patronatokoa**

Badira pilotan egin nahi duten haur eta gaztetxoak.

Asier Garitano (Leganeseko entrenatzailea):

“Gaztetan pilota aukeratzen nuen futbolaren aurretik”

Haritz Gallastegi

López Landa Bizkaiko Pilota Federazioko presidentea, Jokin Etxaniz-Asier Garitano eta Berasaluze II.

Asier Garitanok (Bergara, 1969) ibilbide luzea egin zuen Bigarren eta Bigarren B mailako taldeetan jokalari gisa. Behin erretiroa hartuta pilatutako jakituria guztia aulkitik bideratzea erabaki zuen. Bada, emaitza bikainak ari da lortzen. Leganes Bigarren B Mailatik gorengo mailara igo ostean onenen artean mantendu du talde apala. Askok ez dakite ordea, Athleticek futbolean aritzeko fitxatu aurretik oso ondo moldatzen zela esku pilotan.

Gustuko al duzu piltoan jokatzea?

Oso zalea naiz. Gaztetan asko jokatutakoa naiz eta behin futbolaren aldeko apustua egin nuenetik gertutik jarraitu dut.

Gaztetan pilotan asko jokatutakoa zarela esan duzu. Ikusi zintuztenek esaten dute oso ondo moldatzen zinela. Erraztasuna zenuela esku pilotarako.

Hori esaten dute, bai. Denbora asko pasa da eta ez naiz ondo oroitzen baina nahiko ondo moldatzen nintzen. Jokin Etxanizen kontra aritzen nintzen eta lanak ematen nizkion. Eta pentsa noraino aliegatu den Jokin!

Aurrelaria edo atzelaria zinen?

Aurrean jokatzen nuen. Bazterrak nahastea nuen gustuko. Saltsa zegoenean sentitzen nintzen eroso: batean dejada bota txokora, hurrengoan zabalera jokatu... gustura aritzen nintzen.

Non jokatzen zenuten?

Udal pilotalekuan aritzen ginen. Ama Angiozarrekoa da –Bergarako auzoa- eta han frontoia egin zuten arte elizpean jokatzen genuen.

Zuen sasoian Bergaran futbola eta pilota baino ez zegoen?

Ez pentsa. Umetan denetarik egiten genuen, baina federatzeko adina ailegatzen zenean futbola eta pilota ziren aukera bakarrak. Nik beti pilota aukeratzen nuen. Bergaran sekula ez dut futbolean jokatu. Beti pilota aukeratzen nuen. Athleticek fitxatu ninduenean –Lekeitioko hondartzako torneoan ikusi zuten talde zuri-gorriko begiratzaileak- baldintza bat jarri nuen: futbola eta pilota uztartzeko aukera emateko eskatu nien eta onartu egin zidaten. Debekua jarri izan balidate pilotan jokatzen jarraituko nuela uste dut.

Noiz utzi zenuen?

Jubeniletan. Astean lau aldiz joan behar izaten nintzen Bilbora entrenatzera eta ez nuen astirik pilotan aritzeko. Behin maila batetik aurrera aukeratu beharra dago. Edozein kiroletan bidea egiteko lan asko dago egin beharra eta lehenago edo beranduago gainerako kirolak utzi beharra izaten da.

Idolorik izan duzu?

Retegi zen izarra, baina nik Pierola eta Vergara II.ena nituen gustuko. Aurreko koadroetan magia zuten pilotariek erakartzen ninduten. Gerora Titin ere asko mirestu dut.

Egun lagata daukazu? Lagunartean ere ez duzu jokatzen?

Leganesen Pilota Federazioaren egoitza dago eta haurrekin joaten naiz. Madrilen Leganeseko entrenatzailea pilotan ikustea harrigarria da. Gainera, laguntza ere bada gaztetxoak erakartzeko. Pilota sustatzea gura dute eta ni prest nago laguntzeko. Baina ezin dut asko jokatu. Pilota oso gogorrekin jokatzen dute eta nik eskuak bigunak ditut.

A ze pagotxa duten! Nahita ere ez lukete horren publizitate ona lortuko.

Bai. Eurak pozik daude eta ni ere bai. Gustura joaten naiz. Haurrekin pilota gozoekin jokatzea oso gustuko dut.

Bergara pilota tradizio handiko herria da. Profesional asko eman dituen herria da, alegia. Azkenak Zezeaga, Etxaniz, Oregi... eta egun Beñat Rezusta.

Pilotari on asko atera dira. Reyes Azkoitia eta bere lan taldea lan bikaina egiten ari dira. Telebistaz sarri ikusten dut frontoian.

Bistan da pilota jarraitzen duzula.

Bai. Txapelketa nagusiei jartzen diet arreta gehien. Bestalde, aitari ere galdetzen diot pilotaren gainean eta hark ere kontatzen dit nola doazen kontuak.

Rezusta ahozabalik ari da lagatzen pilota mundua. Ezkerra da, esku bakarrarekin jokatzen du eta hala ere, onenen pare ari da.

Hala da. Ez nuen ezagutzen. Gazte dohatsuak agertu dira. Rezusta, Irribarria... ikaragarriak dira. Indar handiarekin agertu dira. Hala ere, Bengoetxearen garaipenekin asko poztu naiz. Lehengo erako pilotaría da. Artista.

Pilotan, futbolean gertatzen den legez, gero eta atleta hobeak ari gara ikusten.

Hala da. Kirol profesionalean gero eta gehiago eskatzen da eta gero eta gazte indartsuak ari gara ikusten.

Bukatzeko, futbolaren aitzakiaren toki asko ezagutu dituzu. Leganesen pilotan jokatzen dutela esan diguzu. Beste lekuren batean ere ezagutu duzu pilotarako afizioa?

Castellon ijitoek trinketean jokatzen dute. Frontoia futbol zelai ondoan dago eta han nengoenean lantzean behin joaten nintzen eurekin jokatzera.

Asier Garitano gaur egun (ABC)

Urbieta kalea 55, 20006 - Donostia
Tel. 943 42 00 96

ANDONI LERTXUNDI: Ia mila eta laurehun fitxa dauzkagu Gipuzkoako Pilota Federazioan.

Xaxari

Andoni Lertxundi, Gipuzkako Pilota Federazioko presidentea.

Urtebetetik gora darama –joan den uztailean, hain juxtu, bete zuen urtemugari hori– Andoni Lertxundik Gipuzkoako Pilota Federazioko buru bezala, eta lehenago, gainera, lau urte egin zituen idazkaritzan. Beraz, euskal pilotak Gipuzkoan dituen zirrikitu gehientsuenak ezagutzeko motiboak baditu.

Pilotak aurrera egin dezan, zer alderdi positibo ikusten dituen jakin nahi dugu elkarrizketaren atarian.

Oso ongi prestatutako jendean daukagula esango nizuke. Tekinikari eta oso langile onak dauzkagu Federazioan. Lan asko egin dute, egiten ari dira eta gerora ere horrela jarrituko dutenak dauzkagu. Instalazioei dagokionean, asko eta asko egoera onean daude Gipuzkoan.Horretan udal batzuek lan bikaina egin dute. Hirugarrenik, txalotzekoa da, eta gogotik eskertu beharko genukeena elkarteek egiten duten lana. Askotan ez da ikusten, baina, egunak joan egunak etorri, hor ari zaizkigu jo eta ke lanean. Egia esan, bolondres edo boluntario gehiago beharko genituzkeela gauza gehiago egiteko...

Garai batean baino gutxiago al dago, bada?

Azken urteotan ikusten ari garena horixe da, bolondresen hari, soka hori geroz eta mehegoa dela. Gaur egun oso zaila da, diru laguntzak tarteko ez badira, bolondres ugari motibatzea. Dauzkagun bolondresetan ere batzuk aurrera doaz urteetan: bai, urte mordo bat daramatenak lanean...Egia esan, jende gaztea eta sasoikoa ere badabil, baina hemen dago gure hutsuneetako bat. Elkarte batzuk oso persona gutxik eramaten dituzte. Zer gertatuko da elkarte horiekin persona horiek "stop" esaten badute. Hori dago arazoetako bat. Kasu batzuetan, gainbehera nabarmena da. Badira, ordea, jende gaztea lanean ari den elkarteak ere.

Eta gurasoak?

Pilota munduan ez dira talde handiak mugitzen beste kirol batzuetan bezala. Futbolean bezala, esate baterako. Autobusak-eta jarri beharrik ez daukazu, eta guraso asko dira "pilotari txikiekin" batetik bestera ibiltzen direnak. Hau ere txalogarria da oso.

Kezkatzen zaituen gaietara egingo dugu jauzi. Prentsak, esaterako, zuen hesparruari behar bezala begiratzen al dio?

Pilota afizionatuari ez dio behar beste begiratzen. Profesionala ongi zaindua dagoen bezala, afizionatua oso kasu jakinetan bakarrik lantzen da prensa nagusian. Hori horrela, aparteko sare sozialetan egiten dugunarekin eta elkarteek egiten dutenarekin konformatu behar. Esan liteke oso bide propioak dituela afizionatuen pilotak sare sozialetan. Bere zirkuito propioak dituela. Eta egunkari txikietan, eta bailaretako astekarietan...

Kirol baten osasuna zenbaterainokoa den, edota kirol baten larria nolakoa den erakusten duen datoa fitxen kopurua izan ohi da.

Elkarrizketa hau egiten ari garen egunean 1377 fitxa ditugu Gipuzkoako Federazioan. Maila horri eutsi beharra daukagu. Gora egitea ez da erraza izango, baina behera egitea seinale txarra litzateke. Jendeak jakin beza teknikari onak dauzkagula, eta pilota, gurea izateaz gain, kirol egokia dela gaztetxoentzat, nezka nahiz mutilentzat. Infantilekin eta kadeteekin ongi ari gara lanean...Beñat Rezusta, Ander Imaz, Andoni Ugalde, Axier Arteaga eta gurekin ari dira lanean.

Eskuzko pilota profesionalean, gipuzkoar asko punta-puntan, Andoni.

Bolada honetan, azken bolada honetan horrela gertatzen ari da. Hau boladakako zerbait dela pentsatzen dugu. Egia da, lana gogotik egin dela azken joan den urteetan Gipuzkoan, baina...

Orain arte diru-konturik ez didazu aipatu.

Ba, aipatzekoa da. Gu, talde berria alegia, joan den urteko uztailean hasi ginen lanean. Urrira arte ez genuen jakin izan diru-laguntzarik izango ote genuen edo ez. Espero genuen baino diru gutxiagorekin egin genuen topo. Gaur egun Foru Adundiarekin akordio batera iritsi gara, eta orain gutxienez badakigu zenbateko laguntza izango dugun. Urte gogorra izan zen...Langileekin ordu-murrizketak, epaileekin ordainketak atzeratu...

Zer egiten duzue NER GROPek emandako laguntzarekin?

Begira. Hiru herri aukeratu ditugu plangitza berezia ezarri eta ateratzeko. Ikastetxez ikastetxe ibili gara hiru herri horietan –Oñati, Zumaia, Ordizian–, jimnasiako orduetan, eskuzko pilota, pala, xixtera- eta erakusteko. NER GROUP horren laguntzari esker izan da hori, aurtengo urtean sei herri gehiago hartuko ditugu asmo berberarekin. Hiru urterako izango da laguntza hori.

Gipuzkoako Pilotaren Eguna ere antolatu zenuten joan den udaberrian?

Pozik gaude lortu genuenarekin. Pilota "erakutsi" egin genuen. Oso polita izan zen, eta oso harro sentitzen gara. Lan asko eman zigun, baina ondoko urteetan ere egin beharko genuke.

Beñat Rezusta: Binakako Txapelketa da berriro nire ametsa.

JM.Urtizberea



Beñat Rezusta eta Reyes Azkoitia, Bergarako pilotalekuan.

Bergarako udal pilotalekura garaiz iritxi eta kafetegira sartu nintzen, zintzurra berotzeko asmoz. Ez nago erabat seguru lehendabizikoa izan ote nintzen aitortzeko, baina ez ziren asko izango lehenago sartutakoak. Hiru egunkari zeuden mostradorean, eta artean ireki gabeak hirurak, inondik ere. Horregatik diot lehena izango nintzela kafetegira inguratzen.

Egunkari bateko izenburu kezkagarria ikusi nuen:*¡Beñat Rezusta suspende un partido!* Idatzian esaten zenez, 2015eko urtarrilean izan omen zuen uko egin beharra.

Partidu bat bertan behera uztera behartutako lesioa zenbaterainokoa zen ez nekien artean. Hutsean geratu behar ote zait Bergarara egin dudan bisita? Gaur goizean medikutara joan behar izan ote du Beñatek? galdetzen nion nire buruari. Edota ez du bada masailaria bisitatu beharko soilik? Alfer-bidaia egin ote dut bada...Galdera asko, eta argibideak urri une horretan.

Kafesnea gozatzeari ekin nionerako, hasita zeuden hiruzpalau pilotari urtetsu palaz jokatzen, behean, kantxan. Ez nuen denbora asko egin eurei begira. Ezarritako ordua baino lehenago azaldu zen Reyes Azkoitia. Eta jarraian, Beñat Rezusta, hau ere ordu-ordurako, eta ez genuen itzulinguruka ibiltzeko astirik hartu.



Hor zegoen lesioa.

Zenbaterainokoa da partidu bat jokatu gabe uztera behartu zaituen lesioa?

Ez da beste mundukoa. Ez du, ustez, larritasun berezirik. Alberiten jokatutako partidan areagotu egin zitzaidan aurrekotik zetorkidan minsorra. Etenaldi hau egoki etorriko zaio eskuari eta baita neuri ere. Bost-sei egun...Kolpe txar baten ondorio dela esango nuke, eta hori kargatzen joaten da.

Egunkari batek dio bi urte eta erdi egin duzula partidu bat bera ere utzi gabe?

Bai horixe, egundoko zortea da hori. Ez nago bi urte eta erdi izan diren ziurtatzeko, baina urte pare bat badaramat behintzat jarritako guztiak jokatzen. Ez da lesioa ez izatea bakarrik; gripe bat izan daiteke, edo gaisotasun arin bat...Ez dut geratu beharrik izan. Zortea da alde batetik, eta ondo egindako lanaren ondorioa dela esango nuke, bestetik. Orkatila bihurritzea edonori gerta dakioke, eta zain-tiratu bat izatea ere bai. Horietatik ongi libratu izan naiz oraindainokoan.

Reyes Azkoitiak ere bere harridura erakusten digu datu honen aurrean:

Harrigarria da, bai. Urtean zehar asko jokatu eta lesiorik ez izatea, tira. Baina, hain jarraiko partiduak izanik, ezer izan gabe jardutea nahiko harrigarria egiten zait. Egia esan behar badizuet, ezker hori pixka bat noiz minberatuko, noiz ondatuko zain nengoen eskuinarekin nola trebatzen ari zaren ikusteko, baina argi eta garbi dago oraingoz behintzat ez dudala aukera hori izango...

Pilotariok ez dugu horrelakorik nahi izaten. Guk pilotan egitea amesten dugu, eta ez derrigorrean geratu beharra–argitzen du Beñatek.

Aurtengo abuztua ez duzu gainezka eginda amaitu?

Ez. Jakin badakizu oso noizbehinka gertatzen dela horrenbeste jokatu beharra, eta hori amaitzen denean, beste kadentzia batekin jokatu beharko dituzula partidak. Beraz, ez da zaila tunelaren bestekaldean argia ikustea. Hilabetero horrenbeste jokatu behar bagenu, baina tarteak izaten ditugu atseden hartzeko ere urtean zehar.

Bi egunez behin jokatu behar izan duzu horietan, zer nolako atseden-bidea erabili duzu?

Horrelakoetarako neure bide propioa daukat. Ez zait ezer egin gabe bi egun egoterik gustatzen...Partidu bat jokatu, eta hurrengoa berrogeita zortzi ordura jokatu behar izaten dudanean, geldi egotea ez dut inoiz egin. Jaiki orduko mendian bueltatxo bat eman ohi dut, gorputza gogor-gogor geratu ez dadin. Mugitzea beti da mesedegarri.

Reyes, ume-umetatik ezagutzen duzu Beñat; sei urte-edo zituenetik. Zer egin dugu ondo dagoen maila honetara ailegatzeko?

Aparteko gorpuzkera dauka Beñatek Hori oinarri on-ona da. Baina, horretaz gainera badago beste puntu bat ere aipagarria. Gaur egun, guraso askok presa gehiegi dauka bere semea pilotari bete-betea egiteko. Hamasei urterako, pilotari konpletoa egiteko. Jimnasiora bidali, ez dakit zer egin...Beñat hogei urterekin hasi zen profesionaletan. Jakin nahiko nuke lehenago zenbat bider joan zen jimnasiora. Patxada gehiagoz hartu behar da pilotari gazteen bidea. Nik neuk ere banituen nire zalantzak Beñatek nola erantzungo ote zuen profesionaletan, eta bere kontratoa bi urterako izango zela esan zidanean, erantzun nion: –Hartu ezazu lehendabiziko urtea lan-

GIPUZKOA KIROLAK

GIPUZKOA KIROLAK

ASPE

karga berrietara egokitzeko eta bigarrena zeure burua erakusten hasteko. Gertatu da, uste baino lehenago erakutsi duela zeraman maila.

Horrela da–gehitzen du Beñatek. Askatasun handia izan nuen lagunak aukeratzeko, txapelketak aukeratzeko... inor ez du gainean eduki "hau edo hura irabazi behar duzu" esanez. Aholku eman bai, lagundu ere bai, baina gauza asko nire esku lagata, libre.

Urte borobila daramazu, Beñat.

Azken bolada luze honetan oso pozik nabil. Lesiorik ez, emaitzak onak...eta gauzak ikasten ari naizela iruditzen zait. Ondo, beraz. Hasiera batean gauza asko, asko gertatzen zaizkizu arrotz: materialea, erritmoa...baina egoera berrira egokitzen ari naizela uste dut.

San Mateo feria amaitzen denean, zer?

Egunerokotasunari lotu berriro. Frontoia gaur, jimnasioa bihar... eta partiduak gerturatu ahala, atseden hartu.

Zer sentitzen duzu arerio batek sakea eskuinera ateratzen duenean. Hau da, zure gabezia hori bistaratu nahi duenean?

Hori jokoaren dinamika da, normala oso; hori da jokoaren muina. Ni neu saiatzen naiz gainerakoen ahulezi-puntuak bilatzen eta nire areriori onartu beharko diet euren eskubidea ere. Azken batean, pilotaren lojika da hori. Ahal den lekuan tantoa egitea. Nere kasuan, eskuina; beste bati makurtzea...Norberak ondo ezagutzen ditu bere gabeziak eta gainerakoenak.

Reyes, batere aurreratu al du profesional egin zenetik Beñatek bere eskuinarekin?

Aurrerapauso nabarmena eman du. Partidu-atariko beroketak-eta egiten dituenean, ondo baino hobeto erakusten du asko hobetu duela. Horrez gainera, txori txiki batek esan dit entrenamentuetan asko jokatzen duela eskuinez, eta ezin dela sinestu partiduetan zenbat kostatzen zaion esku hori astintzea. Eta hori lortuko balu, amets handiagoak egiteko bidea izango omen luke.

Baditut, bai, nire ametsak, eh, Reyes–erantzuten dio Beñatek. Atzelaria izanik, binakako txapelketa da nire lehenbiziko helburua. Hori garbi daukat. Lau eta erdikoan gauzak zail dauzkat eta orain arte jokatu ere ez dut egin. Buruz burukoan ere aldapa handiak dauzkat...Saiatu beti baina, zailal, zaila dago.

Reyes, galdera asko samar egin diogu eta bukatu egin beharko dugu gaurko elkarrizketa, ez?

Zera iruditu zait erantzun egokia: goiza ala gaua aukeratzeko eskatu diozunean, eman dizun erantzuna: Zertarako den...segun zertarako den.

Elkarrizketa garaian behin beharda ere ez dio bere ezkerrari begiratu Beñat; ukitu ere ez. Ez da seinale txarra. Ez dirudi larregi kezkatzen duenik esku horren egoerak. Logroñora bisita egin behar duela aurreratu dit, eskuak hobetze aldera, masaia hartzera. Bere kasa ese saiatuko omen da, izotzarekin eta eskua onera ekartzen. Gero, Sanmateoak, eta gero...astebete edo kanpora joanda. Apur bat bada ere betikoaz ahaztu. Atseden hartu. Binakako txapelketari begira jarri...

Egonaldi luze samarra egin dugu hizketan Bergarako Munizipalean. Etorri onekoa da Beñat, galde-eratzunetan. Reyes izango da, hala ere, azken muturrean elkarrizketa itxiko duena:

Bera ez da gehiegi busti, baina ni egongo naiz. Ez dakit zer emango nukeen Banakako finalean ikusteagatik, ikusteagatik...Horixe da nire ametsa.

Buruarekin baietz dio Beñatek ere. Garai batean Mekanizatu moduloa atera zuen ikasketa gisa. Gaurregun burua frontoiko kuadroetan dauka, hurrengo partiduen esperoan.

Beñat Rezusta Antiguan Txapeldun (2012).

Irratia, liburua ala telebista?

Liburuzale amorratua ez naiz. Aldian behin...Egunkariak-eta bai. Irratia eta telebista, egunero, dosi txikian.

Eta musika?

Oso konforma-erraza naiz. Irratietan ipintzen dutenarekin ia beti ados... Ez naiz konparazio baterako, talde jakin baten jarraitzailea. Pixkabat danetik, tantaka.

Haragia ala arraina?

Haragia.

Goiza ala gaua?

Zertarako den...Gaur gaurkoz gautxori izaterik ez daukat, baina gogokoa dut gaua.

Hondartza ala mendia?

Mendia, zalantzarik gabe.

Negua ala uda?

Negua. Ez naiz beroaren aldekoa, eta hondartzazalea ere ez. Neguko giro hondradua asko gustatzen zait.

Astelena frontoia ala...besteren bat?

Besteren bat, Anoetakoa baldin bada, hobe. Edo Iruñeko Labrit bada...ez Astelena txarra delako. Baina...

Loa galerazten dizun atzelari bat?

Ondo dagoenean, Zabaleta. Bere kontra jokatzea oso zaila da; pilotari ematen dion abiadurarekin, azpi-azpitik datorrenean. Uf!!!

DANIEL CARBALLO: Una tesis doctoral sobresaliente sobre la implantación del juego de pelota en los centros históricos

J.M. Urtizberea

Daniel Carballo doktore berria.

Esto fue al final, cuando el presidente del Tribunal, una vez finalizados todos los turnos de intervención pertinentes, permitió que pudiera intervenir algún doctor presente en la sala. Tomó la palabra el arquitecto Iñaki Galarraga Aldanondo que, tras felicitar al doctorando Daniel Carballo Ostolaza, recordó que entre las cuestiones planteadas por quienes reivindicaban una Escuela de Arquitectura para San Sebastián, avanzada la segunda mitad del siglo pasado, se contaba el interés por el estudio de las plazas de pelota vascas. El tema de los frontones era recurrente en todas las reuniones de quienes pretendían promover aquel centro. "Daniel ha recogido el testigo de aquellos iniciadores de la escuela"–en expresión de Galarraga.

Desconozco si en la actualidad los responsables de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura siguen contando entre sus prioridades aquella inicial, la de los promotores, y referida al estudio de los frontones. Lo que es cierto es que, por fortuna, algunos arquitectos de centros universitarios sí se han dedicado a esta investigación, como es el caso del zumaiarra Daniel Carballo recientemente. Mejor dicho, lleva mucho tiempo volcado sobre el tema, aunque su resultado lo hayamos conocido a comienzos de este otoño.

La defensa de su tesis doctoral tuvo lugar el pasado día 25 de septiembre en San Sebastián. Una quincena de personas, entre familiares y amigos, quisimos estar con Daniel en el acto. La sala no era grande; el silencio, casi total; una pizca de nervios con seguridad en todos nosotros. Tema: *Implantación del juego de pelota en los centros históricos Grados de implantación del juego en la arquitectura.* Un botellín de agua en la mesa del doctorando, un cuaderno de notas, un teléfono...
La exposición de Daniel es sosegada al comienzo, pero, a medida que se va desembarazando de los nervios, cada vez son más asertivas sus palabras. Para el zumaiarra, los frontones han sido lugares de encuentro y disputa, algo así como el ágora vasca. Y su desarrollo ha sido gradual en la historia, desde los pilotasoros más primitivos hasta los frontones-plaza. Su exposición ha estado ilustrada de una gama muy rica y variada de recursos gráficos, propios o logrados en mil y una fuentes ajenas; en ellos ven reflejados desde espacios pelotísticos de más relumbrón de Europa hasta humildes txokos para la práctica de este deporte. Desde las maravillosas plazas de Florencia o Siena italianas, por poner un ejemplo, hasta el viejo frontón de Aizarnazabal. La intervención de Daniel ha durado cincuenta y cinco minutos. Ha sido la primera mitad del acto.

Esbozado el planteamiento por Carballo, ha llegado el momento del nudo y esto corre siempre a cargo del Tribunal examinador que es quien tiene que pronunciarse sobre la tesis presentada. He tomado nota de algunos calificativos vertidos por sus miembros: "minucioso, contundente, riguroso, enciclopédico, apabullante... Sabe lo que se trae entre manos". Algún examinador ha tenido alguna duda a la hora de denominar al autor: pelotari arquitecto o arquitecto pelotari. En este sentido, la frase más feliz de la mañana ha sido seguramente: "esta tesis es el trabajo del arquitecto fundido con el pelotari". En opinión unánime de los examinadores, el estudio destila entusiasmo, pero, a modo de consejo útil para estudios futuros, que el distanciarse de los temas es más que provechoso.

Los examinadores se han explayado todos ellos sobre las aportaciones del trabajo defendido por Daniel Carballo y sobre algunos temas que quedan por analizar del "espacio lúdico vasco por antonomasia, el frontón".

Construcciones
Angel Peñagaricano

40 urte baino gehiago
ametsak eraikitzen

Más de 40 años
construyendo sueños

Construcciones Angel Peñagaricano, S.A.
Urola, 6 · 20730 - AZPEITIA
943 81 47 50
www.angelpenagaricano.com

Amezketako plaza eta pilotalekua. Luzean jokatu izan da, errebotean eta pleka XIX. mende bukaeraz geroztik.

Quieren expresar con ello que todavía hay tarea por realizar.

He tomado una última nota de sus palabras: “Toda afirmación, toda aseveración tiene que estar apoyada en la autoridad de quien se ha preocupado con rigor científico de un tema o de una cuestión”. Tengo para mí que la investigación de Daniel Carballo ha de servir como punto de partida para futuras tesis sobre la pelota.

Acabadas todas las intervenciones, el Tribunal nos ha invitado cortésmente a que abandonemos la sala, puesto que deben, como es perceptual en semejantes casos, deliberar sobre el estudio presentado y su valoración final. Se han tomado como una media hora para ello. En el exterior de la sala, ya como más tranquilidad, hemos hablado de los frontones del pasado y del futuro. El presenciar el acto de la defensa de una tesis doctoral ha resultado novedoso para bastantes de nosotros. Ahora nos queda saber cuándo será editado su contenido en formato de libro, recogiendo algunas de las sugerencias formuladas por el Tribunal.

Vuelve a abrirse la puerta, y un componente de la mesa de examinadores nos invita a pasar a la sala. El acto se rige como por la estructura clásica de cualquier narración: planteamiento, nudo y desenlace. Ha llegado, pues, el momento del desenlace. Según costumbre o norma, hay que escuchar de pie el resultado de la calificación del Tribunal. Nuevamente, silencio absoluto. El presidente, en lectura pausada de una breve nota, nos comunica que la tesis doctoral presentada es merecedora de la calificación “Sobresaliente”. Desconociendo si es habitual en estos casos, hemos prorrumpido en aplausos al tener noticia del veredicto. Abrazos, besos, bostekos, y alguna lagrimilla por la emoción del momento.

Para Javier, Arritxu, Tiburcio, Maite, etc., una mañana esperada durante largo tiempo. Para Daniel, una mañana sobresaliente. Zorionak!

“Denboraren soinuak” erakusketa

Plazak eta pilotalekuak, artista biren begietan

Galeriano

Patxi Aldunate eta Jaunito Barriola, Erakusketa Donostiako Altzan ireki zuten egunean.

Egun hauetan Laudion ariko dira **Patxi Aldunate** eta **Juanito Barriola** artistak euren lanak erakusten. Egun batean ohartu ziren pilotaleku zaharrek, –garai batekoek, alegia– asko dutela oraindik ere erakusteko. Eta batek zein besteak uste izan zuten merei zuela aberastasun hori jendaurrera ekartzea. Ez da lan samurra bi artista elkar lanean jartzea, baina hauek bederen asmatu dute horretan. Egiako Kultur Etxean elkartu ginen joan den ekainean, euren erakusketa inauguratu zen egun berean. Giro atsegina nabaritu genuen ikusleen artean. Baziren artista bien lagun minak, baina baita ere lehendabizikoz hurbildu zitzaizkien artezaleak. Festa polita antolatu zuten, zizkamizka, freskagarri eta guzti.

Horiek dastatzen hasi aurretik ekarri nituen albora. Euskadi Irratian izan berriak zeuden eta maisukiro jardun zitzaizkidan, solasean, mikrofono aurrean. Ohituak zeudela iruditu zitzaidan.

Nola sortu zen Juanito/Patxi, Patxi/Juanitoren arteko ezkontza hau?– galdetzen diet Egiako erakusketa aretoan. Elkarri begira jarri dira hasieran, eta Patxik keinu egiten dio Juanitori hizketan has dadin. Eta Leitzakoak baietz erantzuten dio buruarekin, eta baita hasi ere.

Garesko ezagun baten bitartekotza zela medio. Egun batean har hor non esaten didan: “Aizu, baduzu hemen inguruan, Obanosen, frontoia gaitzat harturik, metakrilatoan arte-lana egin nahi duen artista bat”. Ah, bai?–erantzun nion interesa erakutsiz. ... Kontua da, telefonoz hitz egin ondoren, arratsalde hartan bertan hurbildu nintzaiola Patxi Aldunateri, Obanosen.

Ordurako bide luzea egina zegoen Juanito frontoien kontuan. 2013an hasi nintzen gaia lantzen...Frontoia eta plaza, plaza eta frontoia... Kondestable aretoan Iñaki Uriarte arkitekto bilbotarrak emandako hitzaldi baten piztu zitzaion argia, eta gero Daniel Carballorekin izandako elkarrizketetan sua indartu.

Viviendas de
1,2,3 dormitorios.
Zona común con Piscina

Información y venta
943 42 38 56

RIBERAS DEL URUMEA

Garajes abiertos y cerrados (puerta motorizada)

Información y venta
943 31 68 10

www.antiguoberri.com

GRUPO ANTIGUO BERRI

S.L.
GAZTELU TXURIA S.L.



Leitzako pilota-plaza irudikatzeko beste modu bat.

Harrez gero, 480 bisita inguru egin ditu, hara eta hona, frontoiak eta plazak bisitatzen, batez ere Nafarroan. Gutxi izango dira Juanitok adina frontoi ikusi eta argazkira biltzen saiatutakoak.

Berriro ere Juanito izango da mikrofonoari begira hizketan, lasai asko.

Bazter asko bisitatu behar izan dut, eta lagun asko egin dut bide horietan. Zenbait jendek ezagutzen du nire zaletasuna eta orain argazki zahar dezente dauzkat, horrelaxe, jendeak bidalita. Eta nik jasotakoak Patxiri luzatzen dizkiot.

Elkarrizketatzaileak Patxi Aldunateri uzten

dio mikrofonoa, jasotako argazkiekin prozesuak nola jarraitzen duen argitu diezagun.

Jasotzen ditudan argazki guztiak ongi aztertzen ditut, eta gero burua eta bihotza jartzen ditut lanean. Eta eragiten didaten sentsazioa aztetzen dut, poliki poliki. Eta Juanitoren baimenarekin, lantzen hasten naiz banan banan. Eta bukatzen dudanean esaten diot:

Adiskidea, hauxe atera zait. Eta ateratzen zait, ateratzen dena. Batzuetan erabat konforme geratzen naiz atratzen denarekin, eta beste batzuen ez horrenbeste...baina, tira.

Obanosko margolariarekin eroso sentitzen da elkarrizkettzailea, euskaraz. Berak dio ez dela hiztun izugarria, baina hasten denean utzi egin behar zaio. Horretaz berehala ohartu naiz.

Ohartxo bat egin behar dut une honetan. Kuadro bakoitza aztertzea ongi dago, baina ikusleak erakusketa bere osotasunean hartu behar du kontuan. Nire iritzirako, lan guztien artean badago uztartzen dituen ezkutuko lokarri bat. Ikusleak gordeko, isileko eta ezkutuko lokarri horri harrapatu behar du. Horretan dago gakoa, bere zentzu sakona.

Erabiltzen duen lan prozesuaz galdetzen diot Aldunateri. Oso garbi dauzka bere lanaren joan-etorriak:

Normalean, metakrilato bat landuz abiatzen naiz, eta makina laser batez eramaten argazkia dut metakrilatora. Hori egin ondoren, margotzeari ekiten diot. Urre-kolorea eta zuri-beltzekoa dira gehien erabiltzen ditudanak.

Juanito asko agintzen ote dion galdetu diot Patxiri. Irribarrez erantzun dit:

Bai, bai asko...Batzuetan, gehiegi gauza onerakoa...

Juanito izango da Patxik emandako puntuari, bertsolarien legean, berehala erantzungo diona, hitzetik hortzera:

Patxiri argazki bat ematen diodanean, nire ikuspuntua eta guzti luzatzen diot; aberastua, alegia, ustez. Nire irudipenarekin, nire sentipenarekin...Izanez ere, frontoia ez da "pilotalekua" soilik. Dantzalekua izan da, eta jolaslekua eta...Informazio hori Patxiri eskaintzen ahalegindu naiz, eta gero, bere errotan eho ondoren, hasten zen kuadroa egituratzen eta "margoz" ikusten. Nik puntu batzuk aipatzen dizkiot, baina azken batean, aukera ia erabat berea da. Erakusketa honetan zintzilikatu diren lanak prozesu luzexko baten frutu dira.

Oso serio jarri zait Juanito kontuok adierazten; serioegi, nire gusturako. Horregatik, honako hau galdetu diot, pikardia pittin batekin: –Obeditzen al dizu Patxik?.

Bai, gehienetan bai. Bueno, hobeto esanda, batzuetan bai...

Patxik ere ikamikan sartu nahi izan du, umoretsu, sudurra.

Ez zait galdera egokia iruditu, maleziaz beterikoa baizik. Horrelako kontuak bion artean konpontzen ditugu ia beti, lasai ederrean.

Labrit pilotalekuan hasi ziren euren lana erakusten, Iruñean, Abel Barriola eta Fernando Goñiren aurrean. Eta Fernando Larumbe ere han izan zuten eta beste zenbait ere bai. Hunkigarria izan omen zen hango inaugurazioa. Gero, Baionara jo zuten. Eta hirugarrenik, Donostiara etorri ziren, Egiako Kultur Etxera, Baztan kalean. Eta Laudion, Urkijotaren Jauregian izango du laugarren geltokia. Eta Nafarroan ere badira ikusi nahi duten herriak. Pozik, oso pozik ikusten dira Patxi zein Juanito orain arte jaso duten erantzunarekin eta aurrerantzean izan dezaketenarekin.

Elkarrizketa bukatu genuenerako zizka-mizka gehientsuenak ahituak zeuden, eta freskagarriak ere lehortzen hasiak ziren. Horregatik amaitu genuen elkarrizketa puntu honetan, hau da, Patxik eta Juanitok ere inaugurazioa ospatzeko zoria izan zezaten.

Aurtengo sarituak: Reyes Azkoitia eta Karmelo Olabarria

Gorgatxo

Bergaratik... Martin Berasategi jatetxera

Reyes Azkoitia oso gutxitzan frontoiratzen da pilota jaialdia hasi ostean, eta jokabide bera erakutsi zigun irailaren 7an, Lasarteko "Martin Berasategi" jatetxera etortzeko garaian ere. Zintzo eta zuzen ibili ohi den erlojuak eskatu bezala azaldu zen Reyes Lasartera, garaiz, ordu-orduan. Irribarretsu, eta hau ere bere ezaugarrietakoa da. Eta ilusioz beterik, partidu on baten atarian bezala.

Patxi Larrañaga, Martín Berasategi, eta Reyes Azkoitia mahaian jarri aurretik.

Garaiz irten gara Bergaratik. Hain garaiz, bidean geldialdia egiteko aukera eta guzti izan dugu. Alegian geratu gara patxada ederrean, ahoa goxatzeko. Eta agindutako orduan iritsi gara Lasartera.

Ez dugu egonaldi luzea egin jatetxe aurrean. Sarreran zegoen harreragileak bazekien Reyes eta Patxi etortzekoak zirela. Mahaia ere izendatua zeukaten, eta beste zerbitzari batek gidaturik, hantxe ezarri dira gonbidatuak. Detaile guztiak kontrolpean dauzkate Martin Berasategiren jatetxean. Hori begien bistakoa da.

Reyesen-eta hurrengo mahaian asiatarrak zeudela iruditu zait. Platera berri bakoitzari argazkia ateratzen diote, eta gogotik aztertu, jarraian. Nik ere gauza bera egin dut Bergarako pilotazale sarituekin, hau da, argazkia atera diet.

Harriturik nago oraindik ere. Inoiz ez naiz suerteduna izan. Eta aizu, aurten, Antiguako txapelketan egokitu zait gaurko opari hauxe. Pozik egoteko motiboak baditugu.

Eseri eta bazkaltzen hasi aurretik egin nahi izan diet azken galdera. Zer moduzko apetitukoak zarete?

Nahiz eta maila honetako jatetxeetara joateko ohiturarik ez izan, portatuko garelakoan gaude. "Sake" ederrekoak gara biok ala biok ere. Ez izan beldurrik.

Isiltasun handia somatzen da Reyesen-eta jangelan, jende dezente inguruan eduki arren. Bakarrik utzi ditut lehendabiziko aperitiboa ekartzera zihoazela ikusi dudanean.

On egin dagizuela, bikote, eta hurrena arte–esanez agurtu ditut.

Euri-tanta motelak erortzen hasi ote diren iruditu zait kanpoan. Bikote frantziar bat Martin Berasategi jatetxe-atarian dauden burdinezko plantxak aztertzen ikusi dut.

Portuetxe erretegian, Karmelo Olabarria eta familiakoak

Karmelok ere berekin du esandako orduak behar bezala betetzeko ohitura. Hori erakutsi zidan joan den irailaren 8an, arratsean. Nahiz eta Donostian bizi, bera ere Bergarakoa da jatorriz. Oso gutxitan gertatu da hau; inoiz ez seguru asko, Antiguako Txapelketaren harian zozketa hasi zirenetik. Noizbait apurtu beharrekoa zen hori ere, eta aurten lortu da, bete-betean. "Portuetxe" erretegi-atarian egin dugu egonalditxoa, parrilari begirik kendu gabe. Hain zeuden ziren bikainak. hain ikusgarriak erretzen ari ziren txuletak eta legatz-zatiak! Josetxo Perurena jo eta ke lanean ari zen bitartean pilotaz jardun gara, Karmelo eta Karlos, Arantza eta Jonrekine.

Karmelo-Arantxa-Josetxo Perurena-Jone eta Karlos, upel zaharraren ondoan.

Oso pilotazaleak dituzue laurok, eta ez dira konformatzen telebista-pantaila aurrean jarri eta partidak ikustearekin. Gonparazio baterako, Izan berriak ziren Anoetan ere. Lastima Altuna-Rezustak finala galdu behar izana...tanto bakar batengatik, doi-doi. Gehiegi ari omen dira azken bolada honetan jokatzen, etenik gabe.

Bergarako Munizipalaz ere hitz egin dugu eta astean ematen ziren jaialdi pareaz; eta Rezustaz; eta zein gazte igotzen diren pilotari batzuk profesionaletara eta zenbat sufritu behar izaten duten sarritan. Eta igandeko traineru-estropadak zalantzan ote zeuden ere komentatu genuen, bi metrotik gorako uhinak espero zirela eta...

Kontuotaz ari ginen bitartean, Josetxo Perurenak esan digu gonbidatuen mahaia prest dagoela, upel zaharraren ondoan. Jende asko zegon ordurako jarrita, mahaian inguruan. Asiarrak ugariak izaki, Portuetxeko jangelan ere, sartu orduko, lehenbiziko mahaian bi emakumezko ikusi ditut. Hauek ere Ekialdekoak direla ez dago zalantza egiterik. Josetxo Perurenarekin egin dugu argazkia, eta lehendabiziko platoaren zain utzi ditut Belauntza-Bergara-Donostiako pilotazaleok udazken usaina duen arrats honetan.

Tercer premio del sorteo: Una historia que se repite

El año pasado no dio señales de vida el poseedor del número premiado con el tercer premio del sorteo: un Televisor. Por consiguiente, no se pudo entregarlo. Este año se ha repetido el caso. Aunque se han recibido infinidad de consultas sobre los números premiados del sorteo 2017, no tenemos noticia del poseedor del billete número 1089, que es el que corresponde al tercer premio. Por lo cual, el Televisor Philips puede seguir la misma suerte que el anterior. Lo volveremos a sortear en el sorteo del próximo Torneo. A ver si a la tercera aparece el boleto premiado...

De todos modos, aunque el plazo de presentación de los boletos premiados ha expirado, no tendremos ningún reparo en entregar el hermoso televisor Phillips a quien acredite ser el poseedor del número 1089.

El cuarto premio –consistente en una mini-cadena musical Panasonic– recayó en Antiguoko Kirol Elkartea.

Siete cajas de vino "Inurrieta Cuatrocientos"

No podemos pasar por alto que el resto de los sorteos realizados en la fase semifinal del Torneo no nos ha ocasionado problema alguno. En todos los festivales celebrados desde el 9 hasta el 23 de agosto hemos podido sortear –gracias a la gentileza de la bodega Inurrieta de Falces, Navarra– siete cajas de *INURRIETA CUATROCIENTOS Crianza 2015* con gran éxito. Estando muy avanzado el segundo partido de todas las semifinales, efectuamos los sorteos con notable resultado. Y rápidamente conocíamos al poseedor del número premiado. ¡Qué bien!

La fortuna quiso que la mayoría de las cajas tuvieran destinos dispares: Aginaga, Hernani, Alza, etc. Por cierto, se han recibido críticas muy favorables en relación con esta pequeña innovación, puesto que con la ayuda de dos euros –que fantásticos son para la organización del Torneo– el aficionado o la aficionada puede presenciar cómodamente los partidos y puede tentar la suerte de una caja de INURRIETA CUATROCIENTOS.

Lo que este año ha constituido una pequeña innovación pasará a ser el año próximo una joven tradición. Ese es nuestro deseo.

Agustín Soriano hace entrega de Inurrieta Cuatrocientos al afortunado del día.

ANUNCIANTES Y COLABORADORES DEL 69.º TORNEO DE 2.017

A.C.R. JAUREGI ELKARTEA
A.PEÑAGARIKANO CONSTRUCCIONES S.A.
A.SEMINARIO, Farmacia
AGUST PELUQUERÍA
AINHOA IRASTORZA
ALAIA, bar
ALBERTO, Peluquería
ALBISTUR, Jatetxe-Sagardotegia
ALDAYA BONI, Correduría de Seguros
ALKAIN SARASOLA, José Luis
ALKARGUNE Kultur Etxea
ALTUNA OLASAGASTI, Miguel.
AMARA TAILERRAK
ANDRÉS MARÍA JESÚS, frutería
ANGIOZAR Pablo
ANTIGUO BERRI, S.L.
ANTIGUOKO K. E.
ANTIGUOTARRA, Cristalería
ANTIGUOTARRAK ELKARTEA
ANTZARA BAR
ANZA, Enmarcación
AÑARBEKO URAK, S.A.
ARANTZA, librería.
ARATZ, Bar-Erretegia
ARAXES INMOBILIARIA
ARTIKUTZA, Bar
ARTOLA, Bar.
ARUN MUEBLES, S. L.
ASEGARCE, Pelota
ASPE, Pelota
AUTO SUECIA VOLVO, automóviles
AZTI, Fotocopias
BASCOTECNIA, S.A.

BASO-ETXEA, S.R.C.
BENTABERRI, Carrocerías
BERAZA, Talleres
BERIYO, Fontanería-Calefacción y Gas
BEST CENTRE, Centro de Estudios
BODEGON DE EL ANTIGUO
BRONTE, Centro Óptico
BUENAVISTA, Restaurante
CAMINO, Martín
CAMPEZO Obras y Servicios
CASA GALICIA
CENOR BIKAY
CILVETI ANAIAK, S. L. Hierros y Metales
CLÍNICA DENTAL MIKELETES
CONSTRUCCIONES MOYUA, S. A.
DANENA, Bar
D G Muebles y Cocinas
DR.IGNACIO LOYOLA ETXANIZ
EAJ/PNV Antiguako Batzokia
EGAÑA EDUARDO
EL BRILLANTE Limpiezas
EL DIARIO VASCO
EKOREC Ecología, reciclaje y medioambiente S.L.
ELI RUBIO, Peluquería
EROSLE, Autoservicio
ERRIBERA, Jatetxea-Bar
ESTANCO, Matía
ESTANCO Paseo Heriz
ETXARRI, Harategia
ETXEZARRETA, Iñaki
ETXEZARRETA, Txema
EUROLAN, LAND-ROVER
EZEIZA, Hotel y Restaurante
F.LARREA, Corredor de Seguros
FARMA-BERRI Parafarmacia
FRASPRINT Imprenta
FEDERÓPTICOS LEGARGA-AUDIOCENTRO
FERRETERIA ONDARBIDE
FORD EASO MOTOR LINTZIRIN
FUJI-CENTRO
GALAN, Talleres
GALTZAGORRI Restaurante
GARAZI Liburudenda
GARMENDIA Martin
GOIZ INMOBILIARIA
GOIZ-LASARTE, S. A. Saneamientos.
GOLDEN BERRI, Bar
GOZOKI, Pastelería
GRUPO CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S. L.
GRUPO CARREFOUR
HARITZ, Aceitunas y Bacalao
HUNTZ, Floristeria
IGUELDO, Talleres
ILLARRAMENDI Felix
IMAKE Peluquería
INJELAN, S. L.
IÑAKI BENGOETXEA, S. L.
IÑAKI Motos
ITXASMENDI Asesoría
ITXASMENDI Bar
ITXURA Complementos
JAKINTZA IKASTOLA
JATOR, Kirolak
JEMO, Talleres
JOSÉ AZPEITIA E HIJOS Ebanisteria-Carpintería
JOSÉ MARI Ópticos
JUAN Peluqueros
KARMELE
KOALA
KULUMA
KUTXABANK
LA CAIXA
LA CERVECERIA
LA INFORMACION, Librería
LAGUNAK, Bar-Cafetería
LANDABE, Catería
LOTERIA 20, Administración
LUCAES Joyería
LUGARITZ Mesón.
LUIS Bar
MANDRAGORA, Cerveceria-Garagardotegia
MARESMA, Fco. Javier
MARIAJE Modas
MARITXALAR, Relojería-Joyería
MARTIN BERASATEGI Jatetxea
MATIA 50, Peluquería
MENDIZORROTZ Bar
MI TIENDA Ropa Hombre-Mujer
MIGUEL CELARAIN-KOTISAL
MIGUELO Liburudenda
MIKEL Carnicería
MIKI fotografía
MISNIS
MUEBLES D.G
MUNIBE S.A.
NATUR-ETXE
NUEVO GROS, Electrodomésticos
OGI BERRI-Javier Altuna
OJANGUREN Imprenta
OLIYOS Bar-Restaurante
ORIXE Imprenta.
ORMAKI, Embutidos-Urdaitegia
PABLO SANCHEZ, ELECTRICIDAD
PEPE Bar Cervecería
PETMAN Electricidad
PICABEA Carnicería
PLAMAR-Revestimientos Metálicos
PLATERO, Bar
PORTUETXE asador-erretegia
REZOLA LOPETEGI, José Javier
RIBERAS DEL URUMEA S. L.
RIBERAS DE LOYOLA S.L.
ROSARITO, Peluquería Hombre-Mujer.
ROSTES Farmacia
SANSINENEA Ainhoa
SANSUSTENE. S.R.C.
SARDON Reparación calzados
SCHMIDT Cocinas y Muebles de Hogar
SEMINARIO Farmacia
SOCIEDAD ISTINGORRA
SONIA Pescadería
TABACOS, Avda. Zarauz.
TALLERES LOREA Mecánica general
TANDEM BERRIA
TECNI-TASA
TOMÉ Moda Hombre-Mujer
TRIKU HARRI Taberna-Jatetxea.
TXINPARTA Sagardotegia
TXOMIN ETXANIZ-Getariako Txakolina
U DOS, Peluquería y belleza
URREA, Comestibles
URRESTARAZU Clínica Dental
URTINEA LOREAK USURBIL
VENEZIA heladeria
VENTANAS SAN MIGUEL-CEDIVISA, S.L.
VOLKSWAGEN VASA, S.L., automóviles
YOCRIS, Joyería-Relojería. Platería
U DOS, Peluquería y belleza
ZUBIONDO ARKITEKTOAK

Bienvenidos
al nuevo **espacio de vida**
de San Sebastián

Donostian
bizitzeko
eremu berri bat

ULTIMAS VIVIENDAS y LOCALES

VENTA
Pisos de 3-4 dormitorios
Áticos de 3 dormitorios

VENTA y ALQUILER
Locales desde
50 a 1000 m²

RIBERAS DEL URUMEA

Información y venta
943 42 38 56

www.antiguoberri.com

compartimos deporte.

EL DIARIO VASCO

compartimos el día a día